

GURE ETXEA

Badira bi urte inguru etxe handi samar honetara bizitzera etorri ginela. Etxe txiki baino txikiagotik gentozen, eta , hainbeste leku ikusita, geure erara nola apaindu erabaki behr genuen.

Hasteko, sartu eta batera, ezkerretara komun txikia dago. Egia da txikitxo delat, baina bainugela baterako behar den guztia dauka. Ondoren, harrera gela bat dago, ez da handia, eta eskuinaldean sukaldea. Sukaldea etxetresna elektrikoguztiak edukitzeko bezaiin handia da, eta gainera, bertan Pittin bizi da, gure untxia.

Sukaldearen aurrean eskailera batuzk daude logeletara igotzeko, baina gletara joan aurretik, beheko solairuan egongela dago. Oso handia da, eta tximinia ere badu egun hotzetan su goxoaz berotzeko. Egongelan tolestuta dagoen mahai bat daukagu. Irrekitzen denean, hamar pertsonak jan dezakete. Horrez gain, duela gutxi proiektore eta pantaila erraldoi bat ditugu sabaian zintzilik. Etxean zinema edukitzea bezalakoa da!

Eskaileren azpian gela txiki bat dago, non garbiketarako tresnak gordetzen ditugun. Gela honi "Harry gela" deitzen diogu; izan ere, gure txakurrak bertan egiten du lo.

Eskaileretan gora bainugela bat eta hiru gela handi-handi daude. Komunean lehen bainuontzia zegoen, baina orain dutxa plater bat daukagu. Hau bainugela nagusia da. Logelei dagokienez, gurea handiena da, duela gutxi bi metroko ohe bat erosi genuen eta oraindik lekua geratzen da! Imajina ezazue zein handia den: ohe galant horretaz aparte, arropa uzteko banku bat (nik eraiki nuen), komoda bat eta armairu bat ere badaude. Beste bi logelak gonbidatuentzat dira, baina ikasteko ere prest daude, gu oraindik ikasten ari baikara.

Berriz egongelara itzulita, han ate bat dago, atarira ematen duena. Hor egurrezko altzariak daude, paletez eginak. Eta ondoan txokoa daukagu, gela handia da eta billar mahai bat eta diana daude. Jolas gune bat da. Txokotik irtetean lorategia dago, baratze txiki batekin eta olibondo batekin (ez du olibarik ematen).

Dekorazioari dagokionez, dena birziklatua eta egurrezkoa da, ta hormetan egon garen tokien koadroak daude. Adibidez, Filipinaseko koadroa bat hariz eginda, Amsterdameko beste bat, eta abar. Eskaileretan gora hiru metroko maoa bat dago, hau ere egurrez eginda, jakina, eta txintxeta bana dago bisitatutako leku bakoitzeko argazki txikiekin.

Bada, hauxe da gure etxea, poliki-poliki, gure egiten ari gara.